

# Kartoi artekoak

*Igor Mercado Azcuenaga*

**Julene Azpeitia**  
**37. ipuin lehiaketa**  
2024 Zumaia



# Kartoi artekoak

*Igor Mercado Azcuenaga*

Julene Azpeitia 37. ipuin lehiaketa

2024

Lehen saria

2024ko azaroan digitalizatutako ipuina.

© Igor Mercado Azcuenaga (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Azkenetan zelako itzuli nintzen aitaren etxera. Hori da, bederen, nire buruari aitortu niona, erdia egia, beste erdia oraindik nik neuk ere jakiteke, gaueko autobusean lo hartu ezinik nenbilela. Kilometroetan aurrera, kristalaren bestaldera soroek eta hirien aldiriek behar zuten. Dena ilun denean, ordea, norberaren isla lausoa baizik ez du itzultzen autobuseko leiho zabalak, buru gainean "larrialdi irteera" izkiriatuta. Aldamenean, adorerik duenarentzat, mailu gorri txiki bat.

Momenturen batean lokartuko nintzen, begiak zabaldu orduko minbera baintuen nola belaunak hala sorbaldak, eta autobusak egunsentiarekin egiten zuen topo hiriko etorbide nagusian. Ehundaka kilometro eta urte askoren ostean, jaioterrian nintzen berriz. Geltokian jaitsi eta, ez hotz ez bero, aitarenganako bidea hartu nuen. Paisaian aldaketak egonagatik, kaleak edozein hiriren gisara zeuden antzaldatuta: zinema-aretoaren ordez, gimnasioa; bideojokoetan aritzeko lokalean, telefono-denda; bideoklubaren tokian "salgai" jartzen zuen afixa fosforitua, hautsak janda.

Ibili ahala, ez zen nostalgiarik batere. Hiri guztiak zulo, eta zulo guztiak berdintsu.

Aitaren etxepean minutuak eman nituen, kosta egin zitzaionez atezain automatikoari erantzutea. Igo aurreko azken zigarreta erretzen, hirugarren solairurainoko eskailerak banan-banan zapaltzen, ideia bakarra zebilkidan bueltaka: ihes egin, atzera hartu hurrengo autobusa. Konturatzerako, baina, etxeke atea erdizka zegoen zabalik, iluna barrenean. Kobazulorako ongietorri herabea.

Aita salako besaulkian zen, zain. Pertsianak ia osorik jaitsita. Telebista bolumenik gabe piztuta. Mahaitxoan pilulak, egunkari zaharrak, baso bat ur. "Zelan?", galdetu zuen eztulen artean. "Betiko legez", nik. Eta orduan, hainbeste urteren ostean elkarri begira ginela berriz, aita isilik geratu zen lau horma hotz eta horizta haien artean. Betikoa zen gutxienez, hitzik gabekoa. Hobe esanda, hitzak beste batzuei eskainitakoa. Hitzak paperean eta, alabari beharrean, gizadiari, gizon berriari, oparo behar zuen etorkizun bati jarriak. Alabaina, etorkizunak otso

baten moduan lepotik ezustean harrapatu eta atoan makurraraziko zuen aita. Ziurrenik, bizar aldrebes eta urdinuaren azpitik letagin markak igar ziezazkiokeen.

Pixkanaka-pixkanaka, aita besaulkian hondoratzen joan zen, lo geratu arte. Aurpegian irribarre baten imintzio leuna margoztu zitzaion orduan, urtetan ikusi gabeko alabaren etorreragatik pozik nolabait, pentsatu nahi izan nuen. Aitzitik, itxura eskasa zuen: azala hori, flakatuta, arropa maiztua soinean (etxeke bata, aspaldiko frakak) eta zahar usain baten besarkada estua.

Estraineke ordu haietan, bada, etxeke lanei ekin nien: etxea egurastu, hozkailuan zeuden apurrekin otordua prestatu, hilabeteetan metaturiko hauts gehiena kendu. Aita txandaka esnatu eta lokartu ibili zen, egun osoan mokadurik apenas ahoratu gabe, koloretako pilulak nekez eztarriraten. Tarteka, hitzen orde zezpainak zimurtzen zituen.

Iluntzean, nire logela izandakoan gorde nintzen. Hamarkadak lehenago bertan bizi izanaren arrastorik ez zuen gordetzen, ez bazen posterrek hormetan utzitako markaren bat edo beste. Edozein pentsio merkeren eskaintza aurki zitekeen han: ohe estu, armairu biluzi eta mesanotxe herren bana. Inpertsionala, aseptikoa guztiz.

Gauari leihotik begira, zigarreta bat bestearen atzetik erretzen ari nintzela, eskaleak agertu ziren kalean zehar. Farolen argipean, kartoiak biltzen ziharduten. Bustitakoak, ez; pizza biltzekoak, ezta; luzangak hartu zituzten, ohantzea inprobisatzeko. Guztiek alde egin zutela zirudienean, bakarra geratu zen etxepean. Eskale soil bat, beste bat hainbaten artean, eskaleen ohiko trazekin, zikin eta bere bakardadean marmarti. Kartoi artean bildu eta kaleko izkina batean etzan zen, izarrei so, tabako arrasto ñimiño batek haren ahotik zerurantz egiten zuelarik. Hirugarren solairutik, edonola, biriketarik ateratzen zitzaidan ke zutabeak bereak baino indartsuago egin zuen gora.

Biharamunean, barazki bila supermerkatuara jaistean, "beriz gurean, ala?" jaurti zidaten bizkarretik. Erantzuteko, ordea, "gurean" horrek zer esan nahi zuen aztertu beharra zegoen lehenik. Alafede, urte andana igarota ere, ironikoa da "gu" hori erabiltzea, isekak eta barre karkailak inoren bizkar oparo banatu ostean, "gutarren" modukoa ez izateagatik inor bazter utzi bazenuen, kanporatu kasik.

“Ondo al zaude, emakumea? Entzun dut zure aitarena, sentitzen dut”, jarraitu zuen ahotsak, nik gorputza biratu ahala.

Rosa zen, eskolakide marijakintu ustekoa, platano sorta eskuan, maistren aurrean apal eta eredugarri aurkezten zen bertsua. Begien bueltan, urteek oparitutako zimurren artetik, errukiaren antzeko zerbait igarri bide nion. Atoan hutsalduko zitzaidan irudipena, “sugeak beti suge” oroitzearekin bat.

“Nahi duzunerako, badakizu”, gaineratu zuen, nire berriketarako gogo eskasaz jabetuta.

“Ze nezesidade, emakumea”, egin nuen nire kautarako. “Ze nezesidade”, jarraitu nuen pentsatzen, supermerkatua atzean utzi eta iraganeko kontuek gogoahitu bitarte. “Ze nezesidade” buruan bueltaka, okindegian, estankoan eta etxera bidean.

Sukaldeko mahaian erosketek bizirauteko kit moduko bat osatu zuten. Barazkiak, oilaskoa, ardoa, ogia eta kartoi bat Douglas. Gorri amerikarra, aitak erretako marka berberari leial beti. Atzera begira, ez nintzen erretzen hasi nerabeen errebeldia ohikoak bultzatuta, auzokoak bezala, erdi ezkutuan, helduen plantak egiten. Ez. Aitaren usaina izan zen: haren besarkada eskasetako batek, etxean egoteko zerabilen jertse trinkoak eta bere hitzek airean zintzilikatzen zuten tabako lurrin hura. Aita apenas irteten zen etxetik, erre eta erre idazmakina aurrean konkorturik, besterik ez zuen egiten, pertsiana erdizka jaitsita beti, kanpoko munduak bere argi pozoitsuarekin mehatxu egin balio bezala. Etxeak, hala, itxi, tabako eta letra usaina zuen. Ohituta nengoen arren, eskolakideek gorroto zuten. Nire soinekoren bat usnatu eta “zure etxeak bezala usaintzen du” esango zidaten inoiz.

Giro lodia izanagatik, aita berehala ohartu zen hasiberria nintzela erretzen. Sukaldera eraman ninduen, argi urdinak dar-dar nire hamalau urteko buruaren gainetik.

“Erretzen hasi zara, bada”, bota zidan. Patxadaz esan zuen, haserre arrastorik gabe, eguraldiaz mintzo bailitzan.

Ez nuen jakin zer erantzun eta isiltasuna egin zen, nola ez, etxe hartako soinu banda. Isilune horiei esker nire baitan egiaren bat mamituko zela pentsatuko zuen aitak, alferrik pentsatu ere.

“Erreko baduzu, ez zaitut eskean ikusi nahi”, esan eta pakete bat mahaigaineratu zuen. Zigilatua, inportaziozkoa, bere buruari oso bakanetan onartzen zion horietakoa.

Duda-mudatan, hartu ez-hartu hartan, aitak egongelara egin zuen. Nik, badaezpada, tabakoa mesanotxeko tiraderan sartu nuen, etorkizunerako bizigaiak gordetzen dituen naufragoak nola.

“Douglas”, iragarri zuen aitak sukaldeko bodegoiari beha. Oinak arrastaka heldu zen haraino, erdizkako irribarre batez; azken boladan erretzeari utziagatik ere, oraindik horizta hortzak, ezpainak, bibotea, aurpegia orobat. Kontrara, bestelako kolorea izango zuten birriek, eztarriak, bizkar aldeak, karramarroaren arrastoa hedatu izanaren poderioz.

Sukaldeko mahaiaren bueltan eseri zen, erosketak antolatu ostean zelan kozinatzen nuen ikustera, telebista aurrean edozein katetan ematen dutena ikustera jartzen denaren ezaxola bertsuarekin. Barazki-purea prestatzen amaitu nuenerako, baina, “ez naiz gose” esan eta golkoratu beharreko pilulak yogurt batera bota zituen. Trakeski irauli ondotik, hiruzpalau koilarakada irentsi zituen, ahituta.

Ordulariak eguerdia marka zezakeen arren, aitaren gorputzak loa eskatzen zuen. Sofan nahiz ohean, begiak biltzen zituen gutxira esnatzeko. Begi bakarra irekita, denak ordenan jarraitzen zuela ziurtatzen zuen, zentinelan antzera. Minutuak pasatzen uztea zegokion orduan, otso-eztulen artean, pilula berrien txanda noiz iritsiko.

Niri ere kutsatu zidan gogogabetasun hura. Pura hozkailuan gorde eta, handik aurrera, desordutan ahoratuko nuen mokaduren bat edo beste, sabelak agindutakoan. Bitartean, denbora eta zigarretak erre nituen, sabaiari begira, hura ere horizta zeharo.

Afalorduan, sukaldeko mahaiaren osterara esertzeko adina indar bildu zuen aitak. “Botika natillekin”, jaurti zidan irribarre erdiz, pilulak masa likatsu hartan hondoratzen zituelarik. Zabor industrial huraxe zen gogo apurrez ahoratzen zuen bakarra. Nik, artean, zigarretei zupadaka jarraitzen nuen, begirada leihoaren bestaldera. Bezperako eskalea kontainerretan usnaka zebilen. Altxorrik eskuratu gabe, kartoiaren gainean eseri eta jakatik zigarrokin bilduma oparoa atera zuen. Jarraian, tabako apurak xehatzen joan zen, banan-banan, azkenik zigarreta

baterako beste bildu arte. Burua altxatu zuen, ase antzean, eta orduan ikusi ninduen. Bion begiradak gurutzatzean, aditu ezinezko murmurioren bat zuzendu zidan eta, atoan gordetzen nintzelarik, gaua bete-betean erori zen.

“Zu musukatzea hautsontzi bat miazkatzea bezalakoa da”, aitortu zidan behin mutil ergel batek. Denborak gixendu eta burusoildu zuen nerabe mehar hura taberna bateko barran topatu nuen biharamunean. Aitarenean etxetik minutu eskasetara, gaztetatik auzora kate batekin lotu izan balute bezala. Goiz hartan ausaz bertaratu nintzenean, ez ninduen ezagutu, edo akaso ez zuen horretarako gogorik bildu. Nire aldetik, isilean eskertu nion edozein bezero soili emango liokeen berriketara mugatu izana: “ebakia: 1,60”. Batzuetan, zorrak kitatu eta hanka egitea bezalakorik ez dago.

Etxean, aitak bere horretan jarraitzen zuen hirugarren egunez. Nire presentzia zalantzazkoa begitantzen zitzaidan tarteka, harik eta kartetan jolasteko gonbit egin zidan arte. Egongelako mahaian eserita, nekez nahastu zituen kartak, dardarti. Ezker eskuan ubeldua zuen, ospitalean irekitako bidearen arrastoa. Min hura laztantzeko gogoari muzin egin eta kartak banatzen utzi nion. Handik gutxira, txintik esan gabe mahaitik altxatu zen, partida erdizka utzita, ohera bidean.

Esna edo lo, mutu antzean geunden biok. Betidanik, aitarekin hitz egitea isiltasunarekin erantzutean zetzan, hurkoa neka zedin itxaron, kalezulo batean hitzak ahitzera behartu. Alabaina, barren-barrenean, noizik behin oihu bat desio izan nuela uste dut, sumin eztanda bat, gizatasun zantzu amiñi bat sikiera, inguruko aiten moduan. Jende arrunta huraxe: saltzaileak, mekanikariak, arotzak, aguazilak, bulegariak. Eta ez halamoduzko militante politiko bat, itzaletatik ihesean, emaztea sarekada batean galdutakoa.

Arratsalde hartan, aita zelanbait aldatuta agertu zen egongelan. Gaztetan erabilitako pipa oparitu nahi izan zidan, “nirekin bukatuko duenaren oroigarri”. Halaxe jaurti zituen hitzok, umorea eztula bezain beltz. Nire aurrean zut, mehe-mehe zegoen, hustuta. Aita ez zen aita daborduko, zigarrokin bat baizik.

Ez pilula ez nafilla, ezer ahoratu gabe oheratu zen. Gauero bezala, leihoan erretzen jarri nintzen, etxepeko eskalearen zain. Hamaika zigarretaren ostean agertu zen, plastikozko poltsa bana eskuan, beste gau batez kartoiak altzoan babestera. Hozkailuko purea berotu, tuper batera irauli eta afaria jaitsi nion.

Urdindutako bizar eta ilaje oparoaren artetik bi begi argik harrituta begiratu ninduten. Orbanez beteta, berokia krakaturik, arropetan kalea itsatsita zeukan. Azkenerako, bere ezpainenek asmatu zuten, zintzilik zuen zigarreta xixtrina alboratu ondotik, "eskerrik asko" ahul bat ahoskatzen.

Etxean berriz, tentuz eta zeharka egin nuen leihorantz. Izenik gabeko eskalea tuperretik zuzenean edaten zebilen, apurrak bizarretan behera, koilara bat jaistea zeharo ahaztu baitzitzaidan.

Goizean goiz, txikitako logelan esnatzean, segundo batzuk behar izaten nituen non nengoen kokatzeko, zertan nenbilen oroitzen saiatzeko. Sabaiari beha, ez nuen erantzun argirik. Aitzitik, zenbait gomuta etxeko paretetan oraindik itsatsita zeudela zirudien. Hala, aita ikus nezakeen gela batetik bestera erretzen, kea etxe osotik bueltaka, ke arrasto luzea, orain dakit, haren gorputz barrutik dantzan halaber. Zigarrokinez mukuru hautsontzia, buruz beherako soldadutxoak, eraitsitako zutabeen gisara. Kea pasabidetik; kea, bere mututasunean, seinaleak igortzen.

Aita ere kea izango zen aurki. Kea laino bihurtzen dela sinets nezakeen, besterik gabe, umeen antzera. Are, kea garraia daitekeela, inorekin eraman.

Goizeko aitaren lo arinen artetik, telefonoko azken mezuak erreparatzeari ekin nion. Ondoren, agenda gora eta behera arakatzeari. Saka nezakeen zenbaki bat eta "aita hiltzen ari da" jakinarazi bestaldekoari. Hotz, ahotsean dardara arrastorik gabe.

Errukia merke bilatu ordez, baina, oroimenetan galdu nintzen egun osoan zehar. Iraganeko lanak, mutil-lagunak, liburuak eta pelikulak, zenbat eta zenbat erdipurdiko, ordenarik gabe buruan sartu-irtenka zebilzkidan. Eta halaxe, oroimenekin borrokan, oroitu nuen oroitu natillarik ez zela hozkailuan eta haien bila kaleratu nintzen. Dagoeneko arratsaldeko lehen orduak izango ziren, beroa etxean sartuta zegoen, euliak ere astun jarrita, bizitzan deskuiduan sartu, baina, desatsegin suertatuta ere, irteteko tenorerik gabe. Zenbat euli, egin nuen nire kautarako supermerkatu bidean. Zenbat euli bizitzan.

Berehalakoan etxeratu ordez, denbora iragaten utzi nuen, supermerkatuko kale hotzetan gora eta behera lehenik, auzotik ondoren. Behin nolabaiteko turista



bilakaturik, arraroa da auzoaren eguneroko martxa zelatatzea. Autoen zarata eta klaxon-hotsak, kamioiak bigarren ilaran aparkatuta, banatzaileak presaka, umeen negarrak, txakurrak jabeen uhaletatik tiraka. Hori guzti hori zurekin ez doala sentitzen duzu. Aktoreak direla kasik, norbaitek jarritako dekoratua. Hala ere, arrats hartan behin eta berriz korritu nituen inguruko orube eta eraikin berberak. Urratsak zenbatzen agudo ez etxeratzearren, gaztetan legez. Natillak, bitartean, eskuan pixkanaka berotzen.

Ordotara, eguzkiaren hondarretan, aita zurbil zetzan ohean etzanda. Lasai joan zela esango nuke. Inor deitzeko beranduegi iruditu zitzaidan, edo akaso bakea baino ez nuen nahi, eta etxeko tiraderak eta altzariak miatzen jarri nintzen, lapurren gisara. Armairu batek Olivetti zaharra, aspaldian erabili gabea, gordetzen zuen; beste armairu bat Douglas markako kartoiz leporaino zegoen. Goitik behera, armairu oso bat bete tabako. Hornidura ezak edo balizko guda batek kezkatuta bilduko zituen kartoiak; eta bertan gorde, ukitu gabe, medikuaren azken ultimatumaren ondoren. Zigarretak irudikatu nituen zorroetan estututa, nahi eta nahi ez hertsiki lotuta, jazoko ez zen misio baten zain.

Metxero bat eta tabako mordoa lagun, keak hartu zuen etxea ezinbestean. Denbora ere ke bihurtu zen, leihotik zelatan, gaua ongi sartuta zelarik eskalearen itzala kalean urrunetik agertu arte. Orduan, eskaierak arrapaladan jaitsi nituen bere enkontrura. Kalean parez pare, eta hatsa berreskuratzeke ahaleginean, hiru kartoi tabako luzatu nizkion. Ondoren, elkarri lotutako lau natilla. Koilara bat jarraian. Eskuak beteta zituelarik, ezustean besarkatu nuen, burua bere bularraren kontra bermatuz. Uzkur adina harriturik hartu ninduen hasieran, erosoago pixkanaka-pixkanaka. Eta segundo batzuek sakon arnastu ostean, jertse maiztu hari itsatsita eta eskale sundaren gainetik, topatu nuen galzorian uste nuena: gorri amerikarraren txikitako usaina.